


Gertukoa esploratzeko ibilbideak



ERRESPETA ITZAZU NEURRIAK

Musukoa jateko edo edateko momentuan bakarrik kendu

Eserita eta lauko taldeetan kontsumitu

1,5 metroko segurtasun-distantzia mantendu beste mahaiekiko



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Asociación
de Hostelería
Bizkaia
Ostalaritzako
Elkartea



Donostia gertuko eginez

Pandemia dela eta, iristear den Aste Santu honetan ezin izango dugu nahi beste mugitu, baina horrek ez du esan nahi ezingo dugunik aisialdiaz gozatu. Izan ere, donostiar peto-petoentzako ere badaude oraindik ezezagunak diren lekuak, eta datozen egunetan aukera paregabea dugu gure hiria hobeto eza-gutzeko. Horregatik, liburuxka honetan Donostian bertan egiteko mota asko-tako planak proposatuko dizkizugu.

Historia gogoko baduzu, Parte Zaharreko ibilbidea eta Go Localek bizikletaz egiteko proposatu duen plana dira aproposenak zuretzat. Lehenengoarekin, hiriaren historia eta euskal kultura ezagutzeko gunerik esanguratsuenak eza-gutuko dituzu, eta emakumeek Donostiaren garapenean izandako garrantziaz jabetuko zara bigarrenarekin.

Postaleko hiriarekin aspertuta bazaude, Urumeara gerturatu zaitezke, eta ibaiarekin lotutako tradizioak ezagutuko dituzu, besteak beste, sagardogile-ena. Abenturazalea baldin bazara, Igeldon non ibili zaitezkeen azalduko dizugu.

Bestalde, hiriaren erdiguneko zaratatik eta mugimendutik aldendu nahi ba-duzu, Donostiatik atera gabe ere naturagune zabalez goza dezakezu. Hu-rrengo orrialdeetan lau natur ibilbide proposatuko dizkizugu, zein baino zein aberasgarriagoa.

Aste Santuan bi asteko oporrak izateko zortea baldin baduzu, ia egunero egiteko planak aurkituko dituzu esku artean duzun liburuxkan, eta ez badituzu horrenbeste jaiegun, urtean zehar erabili dezakezu argitalpen hau, astebururo planak egiteko.

Parte Zaharra

Aita Mari

Kaia arrantzalez eta arrain saltzailez beteta egoten zen garaian, ospe handia eskuratu zuen Jose Maria Zubia Zigararen *Aita Mari* (Zumaia, 1809–Donostia, 1866) marinelak, itsasoan egin erreska-teengatik. Halako batean zendu zen, olatu batek arrastatuta. Haren heriotzak asko atsekabetu zituen donostiarrak, eta kaian dagoen oroigarria eraiki zuten.



Itsas Museoa

Kaitik ibiltzen zarenean, segur aski, Donostiak historian itsasoarekin izan duen harremanari buruz gehiago jakiteko gogo sortuko zaizu, eta horretarako, geldialdi paregabea da Itsas Museoa. Hiriko itsas historia ondo baino hobeto aukera izango duzu museoan, eta horretaz gain, bi erakusketa interesgarri ikusi ahal izango dituzu: *Leopoldina Rosa*: gaur egungo istorio bat eta *Leo eta Dinarekin odisea* (haurrentzat).



Urgulleko kanoiak

Damen bateria hirian beste garai batean bizitakoak imajinatzeko gune aproposa da. XVI. mendean eraiki zuten, eta hango kanoiek hainbat gudatan babestu zuten Donostia. Gaur egun ikusgai daudenek hori irudikatzen dute. Hala ere, gaur egungoek –1897ko Saint Chamond kanoiak– ez zuten inoiz hiriko gudetan parte hartu, apaingarri gisa jarri baitzituzten 1963an.





San Telmo museoa

Parte Zaharreko ibilbide honetan, derri gorrezko geldialdia da San Telmo museoa. Urgullen magalean dago, Pasealeku Berriko olatuetatik babestuta, eta Euskal Herriko historia ezagutzeko aukera izango duzu. Bestalde, ezin duzu *Kearen eta lanbroaren artean* erakusketa galdu: Sigfrido Koch Bengoetxearen argitaratu gabeko argazkiak baititu.

Fermin Kalbeton eta San Jeronimo kaleen izkina

Gaur egun, Parte Zaharra Donostiako auzo bat da, baina garai batean, lau auzotan banatuta zegoen. 1769tik aurrera banatu zuten lau auzotan, eta oraindik, banaketa horretako jatorrizko plaka bat ikusi daiteke Fermin Kalbeton eta San Jeronimo kaleen izkinan: *Barrio primero* jartzen du, eta 1813ko erreketaren ondorengo da.



Lasala plaza

Antzoki Zaharraren ondoan, Donostiako bertsolaririk esanguratsuenaren omenezko kalea dago: Bilintx kalea. Hori jarraituz, Lasala plazara helduko gara, eta lehoi batekin egingo dugu topo. Harresia bota zuten arte, sabanako erregearen eskultura hiriko lehorreko ateko iturria zen, eta 1813ko erreketatik onik atera zen. Dagoeneko ez du urik botatzen, baina badu bere xarma, besteak beste, Txillardegik lerro batzuk eskaini baitzizkion.



Nautikoa

Donostian bada lehorretik inoiz mugitu ez den itsasontzi bat: Nautikoa. Donostiako Klub Nautikoak eraiki zuen 1929an, eta hiriak betidanik itsasoarekin izan duen loturaren erakusgarri modernista da. Donostiaren historiaren lekuko zuzena ere bada, 36ko gerran frankistak han babestu baitziren, eta errepublikazaleek setiatu egin zituzten.



Koch Bengoetxearen erakusketako argazki batean lairiak agertzen dira. **SIGFRIDO KOCH BENGOTXEA**

Gerrako irudi argitaragabeak eta bestelako altxorrak

Koch Bengoetxearen argazkien erakusketa ikusgai dago San Telmo museoan. Saskigintzari buruzko jarduerak eta bestelako erakusketak ere eskaintzen ditu museoak.

Aste Santuan urrutira joateko modurik izango ez denez, aukera bikaina dugu Donostia eta Euskal Herriaren historia hobeto ezagutzeko. Izan ere, San Telmo museoak euskal gizartearen bilakaeran, historian eta bizimoduan mugiltzeko aukera paregabea eskaintzen du, erakusketa iraunkorrean. Euskal Herriko museorik zaharrena da, eta eraikina berri zutenetik hamar urte pasa eta gero, erakusketa interesgarriak ditu izan ginen hura hobeto ezagutzeko, eta gaur garena ulertzeko. XX. mendeko lehen erdia ezagutzeaz gain, ikusteko aukera ere eskaintzen du *Kearan eta lanbroaren artean* erakusketak. Sigfrido Koch Bengoetxea ar-

gazkilariaren argazkiek osatzen dute erakusketa, eta maiatzaren 23ra arte egongo da ikusgai. Bi zatitan banatuta dago.

Batetik, orain arte argitaratu gabeko 1936ko gerrako 90 argazki ditu erakusketak. Hegazkin alemaniar eta italiarrek egindako bonbardaketen ondorioak erakusten dituzten argazkiak daude, esaterako: Gernika, Durango edota Zornotza suntsituta eta hildako hainbat pertsona erakusten dituzten argazkiak, hain zuzen. Donostia ere azaltzen da: 1938an egindako argazki bat dago, adibidez. Argazki horretan frankistek Kur-saaleko zubian eraiki zuten garaipen arkua ikus daiteke.

Bestetik, 1948ko *Pais Vasco: Guipúzcoa* argitalpenean jasotako 65 argazki osatzen dute erakusketaren bigarren zatia. Tradizioak, dantzariak, pilotariak, segalariak, baserritarrak, lairiak, eta zenbait herritako paisaia agertzen da argazki horietan.

Sigfrido Koch Bengoetxearen erakusketaz gain, *Urgullen* magalean erakusketak ere bisita merezi du. San

ORDUTEGIA ETA SARRERAK

Museoa asteartetik igandera dago irekita, 10:00etatik 20:00etara. Astelehenetan itxita egoten da, jaieguna eta zubietan izan ezik.

Sarrerak 6 euro balio ditu, baina hainbat deskontu daude.

Astearteetan doakoa da sarrera.

Informazio gehiago:

www.santelmomuseoa.eus

eta 943- 48 15 80.

Telmo museoa Urgull mendiaren magalean dago, eta Donostia bera ere mendi horren inguruan sortu eta eraldatu da. Horregatik, hiria eraldaketa eta bilakaera historikoaren lekuko paregabea izan da mendia, eta Donostian izan duen protagonismoa grabatu eta piezen bidez erakusten du erakusketak.

Begirada hurbila erakusketa ere zabalik dago museoan: Carmen Ballvek hainbat hamarkadatan egindako zuri-beltzeko hainbat irudi bildu dituzte: ez dira lehenago ikusi. Dominikar Errepublikak, Tanzania, Etiopia, Mongolia eta Peru agertzen dira irudi horietan.

Saskigintzari buruzko jarduerak

Neolitoaren hasieran hasi ziren artisauek landare-zuntzak korapilatuz saskiak egiten, eta desagertzen ari da jarduera hori gaur egun. Martxoaren 28tik apirilaren 11 arte saskigintzako tresnez osaturiko erakusketa egongo da museoan, eta apirilaren 6etik 10era Iñaki Agirrezabalak eta Lourdes Etxaniz lanean ikusi ahal izango dira. Izan ere, beraiek dira saskigintzako teknikan diharduten artisau gutxietako bi. Erakustaldiez gain, Agirrezabalak eta Etxanizek familiantzako taller bat egingo dute apirilaren 10ean. Bestalde, Fermin Leizaola Euskal Herriko saskigintzari buruzko hitzaldia emango du martxoaren 30ean. Saskigintzari buruzko jarduerak lanbide tradizionalei buruzko egitasmoaren barruan daude. Aurreko urteetan lihoaren lana eta gaztagintza ere jorratu dituzte.



Leopoldina Rosa fragatak Uruguaira eraman zituen euskal migratzaileak XIX. mendean.



‘Leopoldina Rosa’ fragataren espedizioa ezagutzeko aukera

Leopoldina Rosa fragata 1842. urtean abiatu zen Baionatik, euskal migratzaileriekin beteta. Historiaren pasarte honetan oinarrituta, Euskal Itsas Museoa haurrentzako esperientzia ludiko bat sortu du: *Leo eta Dinarekin Odisea*.

Leopoldina Rosaren istorioa

Erakusketa honek migrazioaren fenomenoan murgiltzen gaitu, eta bi garai lotzen ditu, XIX. mendeko migrazioak eta gaur egunekoak. Bietan, beren herrialdea uzten dutenek oinarritzako motibazio bera partekatzen dute, hau da, etorkizun hobea bilatzeko desioa.

Bisitariak islatzen dituen ispilu baten gainean XIX. mendeko euskal emigrazioa eta egungo immigrazio fenomenoak buruzko hainbat datu eskaintzen dira.

Erakusketa hau museoko bitartekaritza taldearekin bisitatu ahal izango da larunbatero. Gainera, bisita egin eta gero, parte hartzaileek Kofradia Itsas Etxean denboraldiko pintxo eta edari bat hartzeko aukera izango dute. **Larunbatero** 12:30ean izango da, aurrez eskaera eginda. Bisitak bi euroko prezioa du, eta bisita eta dastaketak, berriz, bost eurokoa.

Leo eta Dinarekin Odisea

8 urtetik gorako haurrentzako eskaintza ludikoa da *Leo eta Dinarekin Odisea*. 2090. urtean girotutako abentura honetan, Leok eta Dinak Donostiara iristen diren haur, nerabe eta gazteak gidatuko dituzte; izan ere, bizitzeko desegokia eta idorra da Donostia mende amaieran. Mahai joko baten antzera dago antolatuta abentura.

Bi larunbatetik behin, Euskal Itsas Museoko bitartekaritza taldeak *Leo eta Dinarekin Odisea* bisita dinamizatuak eskainiko ditu zortzi urtetik gorako umeentzat. Hurrengo bisita dinamizatuak **apirilaren 3an** izango dira, 17:00etan, eta bisitaren prezioa hiru eurokoa izango da, ume bakoitzeko.

Bestelako eskaintzak

Donostiako portuko sekretuak, bitxikeriak eta arkitektura ezagutzeko bi aukera paregabe proposatzen ditu Euskal Itsas Museoa. Batetik, portuko bisita, Isturitz I arrantza-ontzian igozteko aukera eta Kofradia – Itsas Etxean baxurako arrainarekin prestatutako pintxoaren dastaketa egiteko aukera izango dute parte hartzaileak;

14,50 euroko prezioa du bisita honek, eta **apirilaren 3an**, larunbatean, izango da, 11:00etan. Bestalde, *La Jaranatik martxan!* ibilbide gidatuetan, Euskal Itsas Museoko bitartekaritza taldearekin batera bisita gidatua egiteko aukera izango duzu; bisitaren prezioa 2,5 eurokoa da, pertsona bakoitzeko, eta eskaera egin beharko da aurretik.

Derrigorrezkoa da aurrez izena ematea, komunikazioa@itsasmuseoa.eus helbidera idatziz edo 943-43 00 51 telefonora deituz, osasun larrialdia dela eta edukiera mugatua baitute bisitek.

ORDUTEGIA:

Museoa asteartetik igandera dago irekita. Asteartetik larunbatera 11:00etatik 19:00etara, eta igandeetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara. Jaiegunetan 11:00etatik 19:00etara dago irekita.

SARRERAK:

Erakusketara bisita: 2€. Erakusketa eta dastaketa: 5€. Haurrentzako esperientzia ludiko gidatua: 3€. Portuaren bisita eta pintxo dastaketa: 14,50€. *La Jaranatik martxan!* ibilbide gidatua: 2,5€.

Patxillardegia

XVI. mendeko baserria, Donostiako zaharrenetakoa. Bada hari buruzko pasadizo historiko bat: behin, Isabel II.a Loiolatik zebilela, baserriaren aurretik pasa zen, eta pixa egiteko beharrez jota, baserritarrei haien komuna erabiltzeko baimena eskatu zien. Jabeek baletz esan zioten. Esker ona adierazteko, erreginak zergak barkatu zizkien bitzitza osorako.



Espartxo baserria

Altzako lurretan zegoen. XVI. mendeko eskultura eder bat du fatxadan, ibaira begira, San Kristobal omen dena. Parte Zaharreko jauregi batetik ekarri zuen jabeak, Andres Queheille merkatariak.

Sarrueta

Urumeako portu garrantzitsuenetako bat zen. Egungo 27 Industrialdean zegoen, eta Pasaiaiko portuarekin komunikatua zegoen Altzan barrena.

Murgia

Astigarragako muga zegoen portu hau. Hemen sartzen zituzten sagardotegietako sagardo kupelak, eta ondoren, Ala ontzietan, Donostiara eta Pasaiaira eramaten zituzten.



Sagardoetxea

Sagardoaren kulturaz gozatzeko leku bat da, euskaldunen identitate eta ohituren ezaugarri. Naturarekin harremanetan ikasteko leku bat, ikusi, ukitu eta dastatuta...Txotx!



Urumeako uretatik ikusten dena

T_U Unai Elizasu, Arrauningeko arduraduna

Zenbat bide mota ezagutzen dituzu? Oi-nezkoentzako bidea; bidegorria, bizikletentzako bidea; bide berdea, naturagunean dauden bideak; errepidea, motordun gailuentzako bidea; bidezidorra, bidea izan nahi duen bidea ez den bide bat....

Hauek guztiak topa ditzakegu Donostian, baina bada bide bat, oso gutxi eza-gutzen dutena; bidea denik ere inork imajina ez dezakeena. Bide hau, baina, ezin da oinez egin.

Loiolako Patxillardegia baserrian hasi, Espartxotik pasa, Sarroetatik segi, Astillerok, Villa Pilar, Villa Armenonville eta Martutene baserria ikusi, Txurriategi atzean utzi eta Murgian bukatuko dugu. Bai, bai... Donostiako lekuak dira hauek. Tamalez, lekurik ez duten Donostian daude kokatuak.

Urumea ezagutzera ematea da gure lanean barneratuta dugun funtzioetako bat. Ez ditugu soilik Urumean barrena Kanoatan osteratxoak eskaintzen. Kanoatan ibili eta Urumeaz gozatzeko aukera emateaz gain, bidaia bat eta atzera begiratzeko aukera bat ematen dugu.

Egungo Parte Zaharreko tabernetako pintxoz betetako barra edo, Mirakontxan

kalejiran ibiltzea bezela zen garai bateko Urumea. Bertan ibiltzen ziren markes eta erreginak pasiatzen. Bertan ibiltzen ziren, erreka bazterretan, latsariak arropak garbitzen. Arrantzan. Festa gune. Lanean. Garai bateko A8 autobidea zen Urumea, bere ordainsari eta guzti.

Azken batean, leku berriak ezagutzeko ez da urrutira joan behar. Eta, batik bat, begiratzeko moduak dira lekuak ezagutzeko modu berria. Goian aipatu leku horiek guztiak, askoren eguneroko begien aurretik igarotako lekuak dira. Begien aurretik, baina, zenbat gauza interesgarri galtzen ditugu?

Leku bakoitzak du bere historia, eta Urumeako bidean barrena, gurekin datorrenak jakingo du historia horren berri; eta batik bat, historia hartatik istorioak sortzea da gure helburua.

Urumearen luze zabalak ez du gure Donostian lekurik. Askorentzat, Urumea Burdinazko zubian bukatzen da; eta, guk, herdoila kendu nahi diogu uste horri. Patxillardegia baserritik Murgiarako bidea, ederra, berezia eta gurea den bide bat da. Eta inork uste ez badu ere, bide hau, ura bezelakoa da. Bizia.



ARRAUNING

EZAGUTZEN EZ DENIK EZIN LITEKEELAKO MAITA. ARRAUNINGEkin, URUMEA EZAGUTUKO DUZU, URUMEA MAITATUKO DUZU ZATOZ!! 658725498

BADAKIZU DONOSTIARRAK DIRELA MUNDUKO HIRITAR BAKARRAK, HIRIAN IBAI BAT IZAN ETA BERTATIK INOIZ IBILI EZ DIRENAK! ZATOZ / INFO@ARRAUNING.COM



XIX. eta XX. mendeen ohikoa zen Aste Santuan Donostiatik Astigarraga eta Hernaniko sagardotegietara tranbiaz joatea, sagardo berria kupeletatik bertatik dastatzeko. Aurten ere ohitura horren haria segurtasunez jarraitzeko aukera zabaldu du Sagardoetxea Astigarragako Sagardo Museoak. Aurtengo sagardo berria prest dago gure gozamenerako, eta Aste Santuko jaiegunetan familian, bikotean edo lagun artean egun bikaina pasatzeko aukera zabaldu du museoak. Aukeratu zure esperientzia eta antolatu zure bisita!

TXILLIDA ETA SAGARDOAREN KULTURA

Ezagutu itzazu Hernani nahiz Astigarragako ikurak diren Eduardo Txillida eskultorearen artelanak eta sagardoaren kultura, bertako bi museo garrantzitsuak bisitatuz: Txillida Leku Hernanin eta Sagardoetxea Sagardoaren Museoa Astigarragan. Plana biribiltzeko, sagardotegian eskualdeko usadio berezienaz gozatuko duzu, sagardotegian otordua eginez.

Esperientziak barne hartzen dituen jarduerak:

- Txillida Lekuko bisita.
- Sagardoetxeako bisita eta sagardo dastaketa.
- Alorrenea sagardotegian bazkaria.



Prezioak:
Helduak 47€
Haurrak (4-17 urte) 24€



ERRESERBAK:

Sagardoetxea Museoa
Kale Nagusia, 48
20115 Astigarraga
Web: www.sagardoetxea.eus
Mail: info@sagardoetxea.eus
Tel: 943 550 575





SAGARDOA ETA ITSASOA

Donostiako Aquarium-a bisitatuz balearen arrantzaren abentura go-gora ekarriko duzu eta benetako balea baten hezurduraren tamaina ikusiko duzu. Ba al zenekien sagardoa itsasoari oso lotua dagoela? Sagardoetxea Museoan, marinelek eskorbutoa ekiditeko zuten sekretua ezagutuko duzu. Jardunaldia amaitzeko, sagardotegiko gastronomia dastatzeko aukera izango duzu. Esperientziak barne hartzen dituen jarduerak:

- Aquarium Donostiako bisita.
- Sagardoetxeako bisita eta sagardo dastaketa.
- Sagardotegian bazkaria.



Prezioak:
Helduak 47€
Haurrak (4-17 urte) 24€

SAGARDOAREN KULTURA ETA GASTRONOMIA

Gozatu ezazu Astigarragako eskaintzen duen sagardoaren kulturaz eta edari honekin uztatutako bertako gastronomia bereziaz. Sagardoetxea Sagardoaren Museoan sagardoaren kulturaren barneratu eta sagardo dastaketaren inguruko ezaugarriak ezagutu ostean, Astigarragako historiaren gozatu eta bertako sagardoarekin maridatutako menu merezia dastatuko duzu sagardoteka batean. Esperientziak barne hartzen dituen jarduerak:

- Sagardoetxeako bisita eta sagardo dastaketa.
- Astigarraga herriko bisita (gidarik gabe).
- Ibailur Sagardotekan otordu maridatua (bertako sagardoarekin uztatutako menu berezia).



Prezioak:
Helduak 32€
Haurrak (4-17 urte) 17€

PINTXOAK BIZIKLETAZ

Dastatu itzazu Astigarragako zapo-reak herriko txokoak bizikletaz ezagutzen dituzun bitartean. Gosari eder batekin eguna hasi eta Sagardoetxean bizikleta elektrikoak hartu ostean, Astigarragako historia ezagutuko duzu ibilbidean zehaztutako tabernetan pintxoak jan eta sagardoa dastatzen duzun bitartean. Amaitzeko, Sagardoetxea Museoa bisitatu eta sagardoaren kulturaren barneratuko zara. Esperientziak barne hartzen dituen jarduerak:

- Ikatz tabernan gosaria.
- Bizikleta elektrikoak eta mapak hartzea Sagardoetxean.
- Astigarragakjo bisita bizikletan (gidarik gabe)
- Pintxoak eta sagardo kopa Bukoi eta Ekaitz tabernetan.
- Sagardoetxeako bisita eta dastaketa gidatua.



Prezioak:
Helduak 29€

Emakumeak eta hiria

1. Iñigo Ansa eta Hego Iparraguirre,
Go Local-eko kideak



Konstituzio plaza

Plaza hau hirian ospatzen diren jai askoren topalekua da. Festetan tradizionalki gizonak izan dute protagonismoa, baina gaur egun emakumeek ere parte hartzen dute. Eraikin hau udaletxe zaharra da, eta 1925 urtera arte emakumeei sarrera debekatu zieten. Data horretan, Primo de Riveraren diktaduran, Josefina Oloriz eta Carmen Resines zinegotzi izendatu zituzten. Espainiako Estatuan udal batean kargu publiko bat bete zuten lehengo emakumeak izan ziren. 1929an, Oloriz alkateorde izatera ere iritsi zen.

Alderdi Eder

XX. mendearen hasieran, garaiko erreginei esker, Donostia Espainiako monarkiaren helmuga turistikorik gogokoena bihurtu zen. Garrantzitsuenak Habsburgo-Lorenako Maria Kristina izan zen eta hain zegoen hiriarekin maiteminduta non udako etxea eraiki baitzuen, Miramar jauregia hain zuzen ere. Lehen Mundu Gerran, gortearen presentziak kontinente osoko elite politiko-soziala erakarri zuen. Donostiara; besteak beste, Trotski, Picasso, Pertsiaiko Sha eta Mata Hari etorri ziren.



Okendo plaza- Urumea ibaia

Plaza honetan 1936ko gerraren aztar-nak ikus daitezke, bi eraikin esanguratsuen fatxadetan dauden bala-zuloak direla eta. Emakumeen rola funtsezkoa izan zen, hainbat irudi historikotan agertzen dira gizonekin batera borrokatzen, lehen lerroan.

Urumea ibaia elkartzeko eta lan egiteko lekua zen, eta, bertan, arrantzaleak, olagizonak eta arropa garbitzaileak aritzen ziren. Urumeako mugetan bizi ziren emakume xumeena zen ofizio hau, Urumeako uretan arropa garbitzea zuten bizibide.





Tabakalera – Egiako parkea

Hiriaren garapenaren, turismoa ez ezik, industria ere garrantzitsua izan zen. Tabako industria da horren erakusgarri. Tabakaleran, beste askotan bezala, batez ere emakumeak aritzen ziren, zigarrogileak deiturikoak. Hala izan zen 2003an fabrika itxi eta gaur egun nazioarteko kultur zentro bihurtu zen arte.

Hiriaren historian bada beste Kristina ospetsu bat, Maria Kristina Fernanda Brunetti eta Gayoso de los Cobos, Mandasko Dukearen emaztea. Bikotearen antzinako lorategi pribatua zena, hiriko parke publiko handiena bihurtu zen. Parke horrekin lotura handia duen beste emakume bat ere badago, Gladys del Estal, Egia auzoko bizilaguna. Guardia Zibilak, ekintzaile ekologista hil zuen Tuteran, 1979ko ekainaren 3an, protesta antimilitarista eta antinuklear batean.

San Marzial kalea

Hiriko emakume langileen artean telefonistak ere garrantzitsuak izan dira, hiriko telefono sarean lan egiten zutenak. Sare honek 1909tik 1970era funtzionatu zuen eta 1936an 52 emakume enplegatu zituen. Garaiko emakume langileetako bat izan zen Clara Campoamor.

Lau urtez Donostiako Correos y Telegrafos-en lan egin zuen eta ondoren Madrilera itzuli zen, Zuzenbide ikasketak amaitzeko. Ondo dakigunez, Clara Campoamor funtsezkoa izan zen emakumeen aldeko botoaren borrokan. 1972an erbestean hil ondoren, Polloeko hilerrian lurperatu zuten. Zenbaiten arabera, nostalgikak eraginda agindu zuen Donostian lurperatua izatea, Espainiako Bigarren Errepublika ezarri zenean Donostian omen zegoelako.



Miramar jauregia–Loretopea

Garaiko tradizioari jarraituz, 4 urte bete zituenean Donostiako Domingotarren Komentuan sartu zuten Katalina Erauso. Hala ere, ez zituen botoak hartu, 1607an gizonez moztortuta ihes egin baitzuen. Zenbait hiritatik igaro ondoren, Sevillan amaitu eta Ameriketarako bidean ontziratu zen. Han hainbat lan izan zituen, armadan izena eman zuen arte. Perun atxilotua izan ondoren, emakumea eta moja zela aitortu eta Espainiara itzuli zen. Espainian bere meritutik militarrek aitortu zitzaizkion eta Erromara bidaiatzen egin zuen. Han, Urbano VIII. Aita santuak gizonez janzteko baimena eman zion. Ameriketara bueltatu zen eta 1650. urtean Mexikon hil zen.



**GO
LOCAL**
SAN SEBASTIAN

Donostia donostiar baten moduan
ezagutzeko bisita gidatuak
bizikleta elektrikoan!



Sarriegi Plaza, 9
20003 Donostia



www.golocalsansebastian.com



Golocalsansebastian

Igeldo



Canopy tirolinak

Igeldo mendiaren eta Kantauri itsasoaren aireko ikuspegia izateko aukera bakarra ematen dute Canopy tirolina parkeen bi zirkuituek.



Tximistarri

Itsasoaren indarra ikusi nahi? Mendiko bideetatik paseotxo bat eman ostean Kantauri itsasoaren edertasunaz gozatu ahal izango duzu. Igeldoko txoko ikusgarrienetako bat da Tximistarri hondartza.



Funikularra

1912. urtetik Antigua eta Ondarretako hondartza Igeldoko jolas parkearekin lotzen ditu. Urteak pasatu badira ere, hasierako forma eta itxura mantendu du funikularrak, modu horretara hasierako esentzia magikoari eutsiz.

Igeldo herria

Igeldoko bizimoduak ez du hirikoarekin zer ikusirik. Gozatu herriko lasaitasunarekin eta tokiko gastronomiarekin!



Herri txiki baten lasaitasuna

Orio eta Donostia artean, bada hainbat mui-nok osatzen duten herria: Igeldo. Txubilloko jolas parkeagatik ezaguna, erromesek erabilia, eremu berde oso zabala da Igeldo, eta gune txundigarriak ditu.

Oinez, autobusez edo bizikletaz igo daiteke Igeldora, baina ez dira funikularra erabiltzea bezain originalak. Kontxako badiagurutzatuta, funikularren plazan hartzen da trena, Tenis klubaren ondoan. Euskal Herriko funikularrik zaharrenak 312 metroko ibilbidea egiten du guztira, 151 metroko maldarekin, eta segundoko 1,5 metroko abiadurarekin. Goialdean, Kontxako badiaren edertasuna ikusteko lekurik onena dago, begiratokian, eta ondoan, Igeldo jolas parkea.

Jolas parketik aterata, errepide nagusira bidean, Canopy Abentura tirolina parkera iritsiko gara; Donostian halako abenturetak gozatzeko leku bakarra da. Itsasoaren gaineko baso barruan dagoen tirolina parkea da, eta bi zirkuitu daude aukeran, bakoitzak nahi duen esperientziaren arabera. Demo zirkuitoa tirolinetako materialaren erabilera ulertzeko ibilbidea da; bi metroko altuera

duten bi tirolina ditu. Besteak, Canopy zir-kuitoak, hamabost tirolina eta bi erronka ditu. 80 metro ditu tirolina luzeenak, eta Igeldo mendiaren eta Kantauri itsasoaren ikuspegi zoragarriak izango dituzu.

Canopy Abenturatik atera eta berehala Tximistarri hondartzara eramango gaituen bidea aurkituko dugu Igeldoko errepide nagusiaren bidegurutzean. Bide hau hartu eta jaisten hasiko gara, eta hondartzan dagoen porlanezko egitura ikusiko dugu goitik. Adi! Hondarrez eta lokatzez jositako bideetan ibiltzeko oinetako egokiak eramatea garrantzitsua da. Itsasoaren indarraren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango duzue hemen, baita oinak bustitzeko aukera ere; ausartuz gero!

Hemendik gorako bidea hartuko dugu berriz ere, eta errepide nagusitik edo Santiago Bidetik Igeldo herrira joateko aukera izango dugu. Herri txiki baten lasaitasunaz gozatu ahal izango duzu Igeldon, baita eguna ederki amaitzeko pintxo bat ere. Donostiara jaisteko, autobusa hartu —16. linea— eta hamabost minutu baino gutxiagoan Parte Zaharrean izango zara.



TIROLINA IBILBIDEA IGELDON

IGELDO PASEALEKUA, 187
(Igeldoko jolas parkea)
Donostia

ORDUTEGIA
10:30 - 20:00

Prezioa
18€

☎ 943-19 02 28 / 638-03 42 53





Altzako naturagunea

 Herrera – Altza – Molinao

Donostiako erdigunetik at, ekialdeko auzo garai horietan, badago zer ikusi eta zer bisitatu. Donostiar orok ezagutu beharreko lekuetako bat da Altzako Molinao ingurua, hiriko zaratatik aldentuta dagoen berdegune handi bat baita, garraio publikoa erabilita, erdigunetik ordu erdira baino ez da goena.

Altzatik urrun bizi bazara, lasai. Herrerako topoaren gel-tokitik abiatuko gara, beraz, topoa hartuta, erraz iritsiko zara edozein tokitatik. Herrera pasealekua jarraituz, Eusko-trenen geltokira helduko gara, eta Altzako armarría ikusiko dugu tunel baten gainean. Tunela pasako dugu, eta trenbi-dearen azpitik pasako gara, Oxigraf lantegi zaharrarekin topo egin arte. Hortik, San Ignacio galtzada jarraituko dugu, Txirrita Bertsolariaren pasealekuraino.

Pasealekua jarraituz, Larratxo pasealekura helduko gara, eta, pixka bat aurrerago, Felix Iranzo ibilbidea hartuko dugu. Orduan hasiko gara zailtasun ertaineko aldapa igotzen,

baina goian aurkituko dugunak merezi du. Bidearen eskui-naldean berdeguneak ikusten hasiko gara, eta Molinaora gerturatu ahala, baratza batzuk ikusten hasiko gara. Sa-suategi bidea pasata, Molinao bidera helduko gara, eta, or-duan bai, inguruan ikusiko dugun guztia berdea izango da.

Altzaren, Pasai Antxoren eta Errenteriaren artean gaude, eta aire freskoa arnasteko aukera paregabea dugu. Eguzkitza parkean atseden hartu dezakegu, eta aurrera jarraituz gero, Papineko eta Auditx Akularreko zelai zabalez gozatuko dugu, baita bidean aurkituko dugun erreka ere. Hain zuzen, erreka inguruko landaredia zein ondoko basoa oso ondo kontserbatuta daude, eta tokiko landareak ezagutzeko aukera izango dugu.

Inguru guztiko bideak esploratu ditzakegu, eta ziur gauza interesgarriak aurkitzen ditugula. Instagram zalea baldin bazara, zure profila argazki ederrez betetzeko aukera ezin hobe duzu!



Molinaoko erreka zuloetako baso mistoa oso ondo kontserbatuta dago, eta han elkartu ohi dira zelaian ibiltzen diren animaliak eta ondoko basoan ibiltzen direnak. Zorte pixka batekin, agian hegaztiren bat edo ugaztunen bat ikusiko duzu.



Iraupena: 27 minutu.



Hegaztien paradisia



Martutene – Antondegi

Azkenaldian, asko hitz egin da Donostian Martuteneko Antondegi gainari eta han egin nahi duten surf parkeari buruz, baina ezagutzen al duzu zona hori? Donostiar asko ez dira inoiz pasatu handik, eta merezi du bisitatzea, hirigunetik hiruzpalau kilometro eskasera dagoen gune natural zabal bat baita, besteak beste, espezie ugariak hegaztiak gordezten dituen.

Sarrueta biribilgunetik abiatuta, zirkulazioaren zaratatik aldentuko gara Sarrueta pasealekua hartuz, eta segituan, bide malkartsu eta estu bat ikusiko dugu ezkerrean. Lotu ondo zapatilak eta ura edan, Antondegi Gaina bidea izeneko aldapa hori igo behar baitugu Antondegira heltzeko. Gogorra da, baina merezi du. Malda handia bada ere, ez da bereziki zaila, patxadaz hartu behar da.

Igotzen hasi eta berehala, Gipuzkoako landa eremu batera joan izan bagina bezala sentituko gara, nonahi baratzak, belardiak, lursailak banantzeko hesi zaharrak eta baserriak

ikusten hasiko baikara. Hain zuzen, baserri horietako bat, gainera iritsi aurretik dagoena, Antondegi baserria da, inguruari izena ematen diona. Donostian hirugarren sektorea nagusi bada ere, Antondegi lurretan nekazaritza eta abeltzaintza jarduera ugari egiten dira oraindik.

Behin gora iritsita, belardi nahiko lau bat dago, eta hiriko hainbat auzo eta itsasoa ikus ditzakegu handik. Atsedean hartzeko eta zerbait jateko aprobeztatu dezakegu, eta behin indarrak berrituta, 97 hektareako berdegunetik hara eta hona ibil gaitezke, aire freskoa arnastu eta ingurua esploratzeko.

Zortea baldin badugu, ugaztunen bat edo hegaztiren bat ikusiko dugu, biodibertsitate handiko gunea baita; 120 hegazti espezieetik gora behatu dira Antondegin. Era berean, hiriko korridore berdea delakoaren zati garrantzitsu bat da Antondegi, eta txangoa luzatu nahi izanez gero, Lau Hai-zeta parkeraino joan gaitezke, bi berdeguneak lotuta baitaude.



Antondegin urte osoan bizi diren hegaztiek gain, espezie ugari inguruko gune lauak erabiltzen dituzte euren migrazioetan atsedean hartzeko. Horrela, zuhaitzetara eta ingurura arretaz eta isiltasunean begiratuz gero, agian miru gorria, miru beltza, belatz lizarjalea, belatz handia edo hontz handia ikusiko dituzu.



Iraupena: 25 minutu.



 Egia – Ametzagaina

Ametzagaina, ekialdeko birika

Donostiako birika nagusienetakoa da Ametzagaina parkea. Zuhaitz eta landarez jositako 380.000 m² ditu Intxaurrendoko, Loiola eta Martutene artean dagoen parke honek, eta egiteko eta ikusteko gauza asko daude, uste duguna baino gehiago. Hiriguneko zarata eta mugimendutik ihes egiteko ibilbide berde bat proposatuko dizuegu.

Parkeak hainbat sarrera ditu: hiru Intxaurrendoko Otxoki pasealekuan, bat Txomiñeneko Ermitako sarreran, eta beste bat Martutenen, Ostatuko sarreran. Hala ere, Erdi-gunetik gertuen dagoen sarrera Otxoki pasealekuan dago, Lauaizeta Institutuaren ondoan. Hona iristeko, Egian barrera oinez igo gaitzke, ala autobusa hartu –9. linea– eta 'Beharko' geralekuan jaitsi. Lehen sarrera hau hartuta, berehala haurrentzako tirolina eta parkea pasatuko ditugu.

Beheko pista hartuta, ibilaldi labur baten ostean Ametza-

gainako begiratokira iritsiko gara. Donostiako Erdialdea eta Mendebaldea hobekien ikusten den lekua da hau.

Pista hau jarraituz, Garbera ingurura iritsiko gara, eta beste begiratoki batekin egingo dugu topo. Kasu honetan hiriaren ekialdea ikusiko dugu. Donostia guztia ikusten den leku gutxi dago, eta Ametzagaina horietariko bat da, 114 metroko altueran baitago parkea. Begiratokiaren ondoan Ametzagainako kraterra ikusiko dugu; zakurrek korrika egiteko leku bikaina da hau.

Parketik atera aurretik, bisita amaitzeko, erdiko pista hartu eta Ametzagainako gotorleku karlista ikustera joango gara. Gotorleku hau 1875. urtean eraiki zuten liberalek azken Karlistaldian. Karlistek San Markostik eta Santiago-menditik egiten zieten eraso, eta sei kanoiko gotorlekua eraiki zuten defentsarako.



Natur ibilbidea izateaz gain, ibilbide historikoa ere bada Ametzagaina. Azken Karlistaldian liberalek Donostiaren defentsarako eraiki zuten gotorlekua dago.



Iraupena: ordu eta erdi.



Porlan arteko berdeguneak

Nahiz eta hirigintza proiektuek eta merkataritza gune erraldoiek Belartzako eta Añorgako berdegune gehienak irentsi dituzten, bada oraindik Donostiaren mendebaldea ezagutzeko bide ederrik. Ibaeta, Añorga eta Belartza lotzen dituen ibilbide bat proposatuko dizuegu.

Ibilbidea Lugaritzeko topo geltokian abiatuko dugu, eta modu askotara iritsi gaitezke hona: oinez, txirrindaz, autobusez edo topo. Ibilbide guztia oinez edo bizikletaz egin daiteke.

Lugaritzeko topo geltokitik abiatzen da ibilbidea, eta Morlanstik txirrindaz joan gaitezke, lurpeko bidegorritik. Bidegorri honek Añorgarako bidea jarraitzen du, saihesbidearen ondotik, eta Añorga Txikiko biribilgunera iritsiko gara. Puntu honetan ibilbidea jarraitzeko bi aukera izango ditugu. Bi bideak hartzeko zebra-bidea pasa eta Atotxaerreka bidean sartu beharko gara. Ibilbide laburra egiteko,



Lugaritz – Añorga – Belartza

segituan ezkerrera egin eta Pedro Jose kalean sartuko gara. Bide honek Añorga eta Añorga Txiki lotzen dituen errepidea paraleloki jarraitzen du goitik, baserri zahar eta baratzeen artean. Bide honi esker, zuhaitz artean Cementos Rezola fabrikaren ikuspegi ezohiko bat izango dugu.

Bigarren ibilbidea, luzea, Atotxaerreka bidea jarraituz egingo dugu. Bide berritua da hau, eta luxuzko etxebizitza andana egin dituzte azken urteetan. Hala ere, etxe berri horien guztien artean 'Atotxa Ereka' izena duen baserri zaharra ikusiko dugu. Kontraste handiko eremua da hau.

Bi ibilbideetan Errotazar bidean amaituko dugu, eta Unanue-Zar baserriarekin egingo dugu topo, gaur egun landetxe bihurtua. Bide honetan jarraitu ezkerre, jaisten hasiko gara une batean, eta Belartzako saltoki handiak ikusiko ditugu. Hemendik oinez itzuli gaitezke, edo autobusa hartu dezakegu.



Lukainkategi jatetxea Añorgakoen eta Ibaetakoen leku kutuna da. Aingeru Zaindariaren bidean dago, eta indarrak hartzeko aukera bikaina da, bai Añorgatik oinez datozenentzat, eta baita Ibaetatik aldapa igota iritsi direnentzat ere. Jantokitik eta kanpoaldean duen terrazatik Donostiaren ikusmira ederra dago.



Iraupena: ordu bete.

#KirolTxartela

HILABETEKOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

donostiakirola.eus